

**Esan Erran irratia isildu da**

GABON INGURUAN izan nintzen Nafarroako Jauntsarats herrian. Maitane Burusko eta Felix Alzelairekin aritu nintzen berriketan, irratiko estudioan. Lehena, Esan Erran irratiko esataria, eta bigarrena, irratia eta *Pulunpe* aldizkaria kudeatzen dituen Ametza Kultur Elkarteakoa. Etorkizuna beltz ikusten zuten orduan. Bi proiektuak mantendu nahi zituzten, baina 2012rako aurreikusitako diru sarrerek ez zieten horretarako aukerarik emango. *Pulunpe* langile baten bidez mantendu eta irratia boluntarioen bidez piztuta mantentzea zen aukeretako bat.



Maitane Burusko Esan Erran irratiko esataria oraintsu arte.

Urte berriarekin jakin dugu esperotzekoa zen albistea, aldizkariak segiko du eta oraingoz ez dute Esan Erran irratia entzungo Imotz, Basaburua, Ultzama, Odieta, Anue eta Atetz bailaretan eta Lantz herrian.

Asmoa, boluntarioek irratia berriz abian jartzea da.

Nafarroako euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak murrizten ari dira handik eta hemendik. Nafarroako Gobernuak badakigu zer asmo dituen aurtengorako: 0 euro. Hedabide batzuei beste batzuei baino gehiago eragin die Gobernuaren erabakiak. ARGIAren datorren zenbakian Nafarroako euskarazko hedabideei buruzko artikulu luzea irakurtzeko aukera izango duzue.

**Palindromo lehiaketa**

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN elkarteak bigarrenez antolatu du Euskarazko Palindromo lehiaketa. Otsailaren 15a arte aurkeztu daitezke palindromoak eta sariak otsailaren 29an jakinaraziko dira. Arrasateko onenarentzat bazkaria izango da opari eta Euskal Herriko onenarentzat landaturismoan loa. Iazko irabazleak Juan Mari Agirreurreta aretxabaltarra eta Aitor Bengoa arrasatearra izan ziren.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**TALAIAN**

**Manuel Fragaren heriotzak ez du 'Gasteiz 1976' kapitulua itxita utzi**

Fraga frankista hil da eta, besteak beste, 1976ko martxoaren 3an Gasteizen gertatutakoaren erantzuleak aurkitu gabe daude oraindik. Gasteizen egin zen greba orokorrean bost langile hil zituzten eta hainbat zauritu; horien arduradunak aurkitzearen kapitulua ez da itxi, eta ez luke itxi behar. 1976ko Gasteizko gertakizunak ez dira ahaztu behar (horretarako interes handia egon arren), nahiz eta historia tragiko hartako pertsona esanguratsuenetako bat hil. Franco-ren ministro ohiaren heriotzean –hainbat fusilatze bere gain hartu zituen huradana izan da laudorio eta miresmen, bereziki bere alderdia zen PPren eskutik, baina baita PSOErenetik ere. Fragak bizirik zenean ez zuen sekula frankismoa kondenatu –kondenak eskatzen espezialista den PPK ere ez–, eta ez zuen inoiz Gasteizko 1976ko gertakarietan izandako jarrera faxista eta kriminala zuzendu. Fraga zigorgabetasun osoz hil da. Zigorgabetasun horren alde egin dute aparatuzkoak, frankismoaren eta bere arduradun nagusien zerbitzari fidelek.

1976ko Gasteizko gertakizunen ardura, baina, ez da Fragarekin amaitzen. Ez da erregimen frankistaren kate-mailako azkena, batzuek dioten bezala, eta ez da frankismoko azken arduraduna, beste batzuek dioten moduan. Espainiako Estatua da, azken batean, langile haien hilketaren erantzulea, baita beste askorena ere. Beraz, erantzuleak egon badaude oraindik ere, eta bizirik: Juan Carlos Borbón monarka espainiarra, orduan estatu-burua; Martín Villa gisako ministro ohi frankistak; polizia-buru izandakoak, eta abar. Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak lan handia dauka egiteko. Eta memoriak ere bai. Luis Llach kantautoreak eraildako langileen omenezko *Campanades a morts* abestian esan bezala: "Arrazoen hiltzaileak, bizitzen hiltzaileak! Ez dezazuela inoiz atsedetik izan zuen egunetan, eta heriotzan gure memoriek pertsegitu zaitzatela".

Juan Mari Arregi



**BAHEA**

[Jean-Baptiste Battistu Coyos hizkuntzalariak Ipar Euskal Herrian euskara oso larri dagoela adierazteko hainbat faktoreen errebasoa egin du gipuzkoara.net-en. 9tik 3 daude ondoren: “Ipar Euskal Herrian belaunaldi batetik besterako hizkuntzaren transmisioa familian zinez ahula da. Bigarren mailan legoke, hau da, ‘larriki arriskuan’.](#)  
 –Hiztunen kopuru zehatza apala da: 51.800 hiztun elebidun dira 16 urte edo gehiagoko biztanlerian (*IV. Inkesta soziolinguistikoa 2006*). Faktore horren arabera, hirugarren mailan legoke euskara, ‘arriskuan’.  
 –Hiztun tasa biztanleria osoan: elebidunak % 22,5 dira, elebidun hartzaileak % 8,6. 1996ko inkestaren arabera, elebidunak % 26,4 ziren. Berriz ‘larriki arriskuan’ dela erranen genuke”.